




Udal Harrera Sarea martxan eta lanean Red de Acogida Municipal



Oiangu: parte hartzen
ikasi, eta parte hartu



Nuevas condiciones para
acceder a VPO de San Juan



Obras del nuevo
puente de Upabi



Martxoak 18,
azokak 500 urte





Ume talde bat betaurreko berriak jarrita pozik.

Antzokia aro berrira egokituz

Ordiziako zinemazaleak suerteko dira. Herri antzokian egin berri diren moldaketek zinemaren kalitatea hobetu eta joera berrietara egokitzeko aukera eman dute eta. Lehen 35 milimetroko teknologiaz proiektatzen baziren filmak, orain digitalean edota 3Dn eskaintzeko aukera dago, beraz, filmaren bereizmena eta batik bat azpizatzen kalitateak gora egin du nabarmen. Zinema kalitatea handitzeko ahalegin honetan, udalak egindako esfortzua 68 000 euro baino gehiagotan zenbatu daiteke. Hala ere, ezin da ahaztu, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzen bidez erdia baino gehiago berreskuratuko dela.

Ez da kasualitatea horrelako inbertsio bat egiteko erabakia. Izan ere, geroz eta film gutxiago ekoizten dira 35mmtan. Europatik eta AEBtik datozen film gehienak formatu digitalean baitatoz. Horrelakoetan, filma disko gogor moduko batean iristen da Antzokira. Bertako edukiak ordenagailura pasatu eta horretatik egiten da emanaldia. Hala ere, oraindik film bat edo beste 35 mm-tan etortzen denez, proiektore zaharra ere mantentzen da proiektzio gelan.

3D teknologian eskainitako lehen filma El Rey Leon izan zen, haurrei zuzendutako pelikula. Baina aurrerantzean ikusle guztiei egokitutako emanaldiak eskainiko dira. Esaterako, otsailean Immortals (helduentzako), Pina (zinema alternatiboa) eta HappyFeet 2 (haurrentzako) emango dira.

Aurrerantzean zineman egiten diren emanaldien sarreren salneurria ere egokitu egin da. 2012. urteko proiektzio normalen prezioa 4 eurokoa izango da. Haurren kasuan, igandetan egin ohi den proiektzio berezian, 2,50 euro ordainduko dituzte. Baina 3Dn egindako proiektzioek salneurri berezia dute: 5 euro. Lehen aipatu moduan, 3Dn egindako proiektziotan ere, haurrak izango dira salbuespena. Igandeko emanaldian 3,50 euro ordainduko dituzte. Abonu sistemak berdin jarraituko du: 20 euroren truk 8 film ikusteko aukera, emanaldi mota edozein dela ere.

Teknologia berriak abantaila ugari dituela argi dago. Horregatik, Udalak garaietara egokitu nahian eta aldaketei aurre hartuz Antzokiko moldaketak egin ditu. Orain ordea, erabiltzaileei ere arduratsuak izateko eskaera luzatzen zaie. Izan ere, material guztia, betaurrekoak barne, oso garestia da. Denen artean ahalik eta txukunen eta ondoen mantentzeko ahalegina egitea beharrezkoa da. Horregatik, gurasoei gogoratzen zaie, 3D emanaldietan, 7 urtetik beherakoek heldu batez lagunduta joan behar dutela. ■

“ Ya tenemos cine digital

El Ayuntamiento de Ordizia ha hecho un esfuerzo de 68.000 euros (más de la mitad se recuperará con ayudas del Gobierno vasco) para adecuarse a los nuevos tiempos. Para ello, ha digitalizado el proceso de proyección de las películas, ya que hoy en día la mayoría de ellas se difunde en formato digital. Además, se podrán proyectar películas en 3D. El precio de las entradas oscilará entre los 2,5 euros de las sesiones infantiles para los niños, hasta los 5 euros para las proyecciones en 3D para los adultos.

Iada, bada, Ordiziako Berdintasun Batzordea martxan!!!!

Ordiziako Udaleko Berdintasun Batzordea jada martxan eta lanean ari da. Batzordeak lan eraginkorra egin nahi du emakumeen eskubideak aldarrikatu eta berdintasuna bermatzeko. Baditugu herrian hainbat talde lan horretan urteak daramatzatenak (besteak beste, Ordiziako Gay eta Lesbiana taldea, Kimetz taldea, Egizan eta talde feministak...) eta horiekin elkarlana bultzatzea da gure lehentasunetako bat. Era berean, Batzordearen lehentasunen artean gaztediarekin lan egitea eta gazteak inplikatzea dago. Horregatik, Gazte-txearekin eta herriko beste hainbat eragilerekin elkarlana bultzatuko da (ikas-tetxeak, kirol taldeak, gaztelekua...).

Jakina, prozesu hau benetan parte-hartzailea eta eraginkora izateko, guztion inplikazioa behar dugu. Horretarako, ezinbestean elkar ezagutu behar dugu eta elkarrekin jardun behar dugu aldarrikapenean, lanean eta baita ospakizunetan ere.

Martxoak 8, Emakumeen Eguna, aldarrikatzeko eta ospatzeko hainbat jarduera prestatzen ari gara batzordean, hala nola, antzerkia, erakusketa, bideoforum, tertulia, kontzerturen bat eta **Ordiziako Emakumeen Herri Afaria**. Emakume, adi egon eta parte hartu! ■

“ 8 de marzo: reivindicación, trabajo en común y celebración

La Comisión de Igualdad ha empezado ya a dar sus primeros pasos con el objetivo principal de poner a las diferentes asociaciones y colectivos, y ordiziaras interesadas a trabajar en común por una igualdad real. Para ello, es imprescindible el trabajo de todas, tanto en las reivindicaciones, como en los diferentes proyectos, y también en las celebraciones.

Para ir conociéndonos todas, para crear complicidades, para trabajar en común... la Comisión de Igualdad hace un llamamiento a todas las ordiziaras a participar en las diferentes actividades que se están programando para el próximo día 8 de marzo, tales como teatro, exposición, video forum y tertulia, concierto y la **Cena Popular de las Mujeres de Ordizia**. ¡Estate atenta, y participa!

Oiangun zer egin erabakitzeko parte-hartze prozesua

Ordiziako Udalak herritarren esku utzi nahi du Oiangu Udal Parke Naturalaren etorkizunaren gaineko erabakia. Horretarako, herritar eta eragile orori irekitako parte-hartze prozesu bat egituratu du Ordiziako Udalak eta udaberrirako abian izango da. Helburu orokor nagusia, Oiangu ordiziarron naturagunea dela jabetzea eta hilabete batzuen buruan haren etorkizuna elkarrekin diseinatzea eta adostea izango da. Xede horrekin, herritar guztiei bermatuko zaie parte hartzeko aukera, modu orekatu batean.

Ordiziarrei Oiangu naturagunearen inguruko informazio zabala eskainiko zaie eta dituen balioak ezagutaraziko zaizkie. Hala, herritarren eztabaida erakitzailetik adostutako proiektua garapen iraunkorrean oinarritua izango da. Izan ere, Oiangu naturagunea izanik, ingurumenarekiko errespetua izango du oinarri, interes publikoari eta horretarako, garrantzitsua izango da herritarren babesa jasotzea.

Ordiziako Udalak sustatu nahi duen eta lanerako tresna bihurtu nahi duen parte-hartze kultura indartzeko prozesua izango da.

Informazioaren gainean, guztiok Oianguaren etorkizunaz hitz egin, eztabaidatu eta adostasunera iristeko aukera izango da; beraz, Udalak prozesuan parte hartzeko deia egiten die herritar eta eragile guztiei. ■

“ Ya está en marcha el proceso participativo sobre Oiangu

El Ayuntamiento de Ordizia quiere que sean los y las ciudadanas las que decidan qué quieren hacer en el Parke Natural de Oiangu. Con ese objetivo, se ha diseñado un proceso de participación que durará unos meses y que en primavera estará ya en marcha.

Parte hartze kulturaz janzten

Udalak arlo desberdinetan parte hartze prozesuak hasi ditu. Horietan dinamizatzaileak eta prozesu parte hartzaileetan formazioa duten jendearen beharra ere identifikatu da. Horregatik eta jendartearen elkarlana eta inplikazioa bultzatu nahian parte hartze ikastaroa eskainiko zaie interesa duten herritarrei. Bereziki, eragileak erakarri nahi dira. Gure herria mugimenduan jartzen dutenak.

Saioak Majori kiroldegian egingo dira martxoaren azken egunetan: 30 eta 31an hain zuzen. Izena emateko beharrezkoa da eta horretarako udalak bi bide nagusi jartzen ditu herritarren eskura: telefonikoa eta posta elektronikoa. Telefono bidez izena emateko Udallexera deitu behar da (943 88 58 50) goizetan deitzen bada edo Barrena Kultur Etxera (943 80 56 30) arratsaldean egiten badugu deia. Posta elektronikoa bidez egiten badugu, berriz, partaidetza@ordizia.org. Izen-emateko epea martxoaren 5etik 16ra bitartean egongo da zabalik.

Tailer hauek alde teoriko eta alde praktikoa izango dute, eraikuntza kolektiboko prozesua izatea nahi da. Taldeko pertsonen esperientzian oinarritu eta inplikazio nahiz jabetzea indartzen duten tekniken bitartez taldean landuko denaren ekintzetara iritsi. Oianguko prozesu parte hartzailea da tailerraren muin nagusia. Izan ere, prozesu hori bideratzeko estrategiak, planifikazioa, helburuak eta tresnak barneratu nahi da tailer honekin. ■

“ Curso sobre participación ciudadana

El Ayuntamiento de Ordizia ha organizado cursos teóricos y prácticos sobre participación ciudadana, con el objetivo de que la gente pueda aprender a participar y gestionar en los procesos de participación que lleva a cabo el Ayuntamiento. Los cursos se darán en Majori y serán el 30 y el 31 de marzo. Para apuntarse se puede llamar al 943 88 58 50 por la mañana o al 943 80 56 30 por la tarde; también se puede escribir a partaidetza@ordizia.org. El plazo para apuntarse se abre el 5 de marzo y se cerrará el 16 de ese mismo mes.



Upabiko zubia

Laskaibarretik N-1era doan Agerre bidea itxita egongo da datozen bi hil eta erditan, Upabi izenez ezagunak diren lursailetan trenbidearen gainean zubi berria eraikitzen hasi direlako. Zubi hori Laskaibar auzoa N-1arekin lotzen duen bidearen hiru zatietako bat da.

Ordiziako sarrera irteerak traketsak dira eta Udalaren lehenasunetako bat horiek hobetzea izan da beti. Herri-guneko sarrera-irteeretan sortzen diren trafiko arazoak konpontzeko Upabiko lursailetan exekuzio urbanistiko bat gauzatzea erabaki zen eta lan horiek abiatu ditu orain Udalak.

Exekuzio honek hiru zati izatea aurreikusi zen. Bata, Laskaibartik trenbide gaineko zubi bitarteraino, CAFek gauzatuko duen lana; bigarrena, Upabiko zubia, orain Jaurlaritza eraikitzen hasi dena; eta hirugarrena, zubitik N-1 errepedieraino doana, Foru Aldundiak egingo lukeena.

Lehenengo bi zati egin ahal izateko beharrezkoak ziren urratsak 2009an eman ziren eta hitzarmena sinatu zen hori lortzeko. Errepide honek Ordiziarentzat duen premiagatik Udalak hainbat bilera izan ditu hauek egiteko ar-

dura duten erakunde eta enpresarekin, exekuzioa lehenbailen hasi zezaten. Hirugarren zatiari dagokionez, bide hori egiteko proiektu bat badagoen arren –bi aukera posibleekin–, finantzaketa hori arautzen duen hitzarmena sinatu gabe zegoen, eta, beraz, ez zen ziurra ekitaldi honetan finantzatuko ote zen. Foru Aldundiko arduradunekin izandako zenbait bileratan, lan hori egiteko beharra azaldu zaie, horretarako aurrekontu gordailutzerik eduki ez arren. Foru Aldundiaren erantzuna izan da obra gauzapean hori kontuan hartuko dutela, baina ezin da ahaztu Upabiko zubia eta Laskaibar auzoaren arteko beste konexioak –hitzarmenez CAFi egitea dagokion lana– ez duela gauzapean hori egiteko aukera emango lukeen hiri-gintza eredurik, proiektuan agertzen den moduan.

Udala saiatuko da arazo hauek ahalik eta denbora-tarte laburrenean konpontzen, presakoa ez ezik, lehenasunezkoa ere badelako. Eraikuntza horri lotutako erakundeekin hartu eman zuzenean dihardu lanean, ahalik eta denbora-tarte laburrenean, Ordiziarako hain garrantzitsua den komunikazio hori gauzatu dadin.■

“Obras entre Laskaibar y la N-1

Han comenzado ya las obras para realizar el nuevo puente de Upabi, en el camino que va de Laskaibar a la N-1. Por ese motivo durante dos meses y medio el camino Agerre bidea permanecerá cerrado al tráfico. La ejecución de las obras se realizará en tres fases. El convenio para realizar las dos primeras, la construcción del puente (a cargo del Gobierno Vasco) y el tramo que va de Laskaibar al puente (a cargo de CAF), se firmó en 2009. Pero no así el correspondiente a la tercera, el tramo entre el puente y la N-1. La intención del Ayuntamiento es acordar con Diputación que se haga cargo de dicho tramo. Aunque a día de hoy no existe ningún compromiso adquirido, ni partida presupuestaria, se han mantenido varias reuniones con responsables de Diputación Foral, y ante la necesidad y premura de dicha obra, se han comprometido a considerarla aunque no tuviera asignación presupuestaria; pero sin olvidar que también la otra conexión del puente de Upabi con el barrio de Laskaibar, (obra que corresponde ser realizada por convenio a CAF), adolece de la figura urbanística que posibilitaría dicha ejecución en los términos que aparecen en el proyecto y que intentaremos sean resueltos en el menor espacio de tiempo.

San Juango babes ofizialeko etxebizitza berrietarako, baldintzak berriak

San Joanen babes ofizialeko etxebizitza berrien eraikuntza hasi da. Etxebizitza hauek, Babes Ofizialeko Etxebizitzen eskatzaileen Udal Erregistro iraunkorraren zerrendan oinarrituta esleituko dira. Zerrendan lehendik izena emana duten edo martxoaren 16a baino lehen ematen duten pertsonak hartuko dute parte esleipen-prozeduran.

Zerrendan izen emateko bete beharreko baldintzak arindu egin dira herritar gehiagok izan dezan aukera. Orain, izena eman ahal izateko interesdunek adinez nagusiak izan beharko dute eta ondorengo baldintza hauetako bat, gutxienez, bete beharko dute.

1. 2011ko martxoaren 1az geroztik Ordizian erroldatua egotea.
2. Euren bizitzaren % 50ean, gutxienez, Ordizian erroldatua egon izana.

Etxebizitzak esleitzeko prozedura sustapen zehatz bakoitzerako Ordiziako Udalak ezarritako baldintzen orrian arautuko da.

Zerrendan izena emateko eskaerak Ordiziako udaletxeko bulegoetan aurkeztu ahal izango dira astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00ak bitartean.

Sustapenari buruzko informazioa eskuratu ahal izango da Ordizia Lantzen SA udal-sozietatearen bulegoetan (telefonoa: 943.212354. Avda de Zarautz n° 82- 3°. Donostia. E-maila: maider@esarbe.net).■

“Condiciones más flexibles para acceder a las nuevas VPO de San Juan

Ya se ha iniciado la construcción de un nuevo bloque de viviendas de VPO en San Juan. La adjudicación de estas viviendas se realizará a partir de la lista del Registro Municipal permanente de Solicitantes de Viviendas de Protección Oficial, y participarán en el Procedimiento de Adjudicación las personas que estén ya inscritas en dicha lista o se inscriban en ella antes del 16 de marzo de 2012.

Las personas interesadas deberán ser mayores de edad y cumplir al menos con uno de los siguientes requisitos.

1. Estar empadronada en Ordizia desde el 1 de marzo de 2011.
2. Haber estado empadronada en Ordizia durante al menos el 50% de su vida.

Los que deseen inscribirse en la Lista Permanente de Solicitantes, podrán presentar las solicitudes en las Oficinas del Ayuntamiento de Ordizia de lunes a viernes, de 9:00 a 14:00 horas.

El Procedimiento de Adjudicación de las Viviendas se regulará por el Pliego de Condiciones establecido por el Ayuntamiento de Ordizia para cada promoción concreta.

Se podrá obtener información sobre la promoción en las oficinas de la sociedad municipal Ordizia Lantzen, S.A. (Teléfono 943.212354. Avda de Zarautz n° 82- 3°. Donostia. e-mail: maider@esarbe.net



San Joango babes ofizialeko etxebizitza sail berria eraikitzen.

Udaltzaingoaren oharrak

Aldi zaharreko lau zamalanguenei ordutegia moldatu zaie. Orain arte zamalanetan jarduteko arratsaldeko seiak arte zegoen baimenduta, ondoren mugarik gabeko aparkalekuak ziren. Orain, hornitzaileei lana erraztu asmoz etabanaketa zamalanguene horietatik egitera bultzatzeko, zortziak arte ezingo da gunehorietan aparkatu.

Aldi zaharreko aldaketez gainera, badira berrikuntzak. Urdaneta Ikastetxeko haurren segurtasuna bermatzeko, ikastetxeko sarrera-irteera ordutegian ezingo da autoz Intxausti plazara sartu. Neurri horiek guraso elkartearen eskariz hartu dira. Jakintza eskola inguruan ere antzerako arazoak daudenez, hainbat neurri hartuko dira.■

“Horario de carga y descarga

El horario de los cuatro aparcamientos de carga y descarga del casco viejo se alargarán de las 18:00 horas actuales hasta las 20:00 horas. Por otra parte, no se podrá acceder en coche a la Plaza Intxausti en los horarios de entrada y salida de los estudiantes de Urdaneta. En los alrededores de Jakintza Ikastola también se tomarán medidas.



Udal langile berriak

Udalak abian jarri du aurten ere Lanbidek finantzatzeko duen enplegu plana. Udalak jardunaldi osoa eta sei hilabeteko kontratua izango duten 16 langile hartu ditu. Lanak antolatzeko arduradunaz gain, honako hauek kontratatatu dira:

Obra txikiak. 3 peoi.

Ordizia berdintasunarekin. Langilearen eginkizunak: ikastaro eta programak antolatu, gizarte eta hezkuntza alorrean esku-hartu...

Ordizia adinekoekin. Adinekoen premiei buruzko ikerketa eta sensibilizazio kanpainak egitea izango da gizarteratze agentearen zeregin nagusia.

Osasuna eta ekintza komunitarioa sailak sustatzea. Ongizateko zerbitzuen katalogoa egin eta horiek dinamizatzea izango da helburua, baita drogamenpekotasun prebentzioko teknikariaren funtzioak berraztertzea ere.

Ordizia euskararekin. Pertsona baten eginkizuna izango da euskara sustatzea merkataritzan eta kirol munduan. Bestearena, eskolaz kanpo euskararen ezagutza landu eta sustatzea etorkinekin.

Ordizia gazteekin. Gazte informazioa zabaltzeko proiektuak abian jarriko ditu teknikariak.

Ordizia kulturala. "Hiri Hezitzailea" eta Aholku Batzordea indartuko dira, horiek sustatuz eta dinamizatuz.

Ingurumen kanpaina. Erosketa eta kontratazio prozesuetan ingurumen irizpideak txertatzeko neurriak proposatu eta bultzatuko dira.

Azoka dinamizatze kanpaina. Marketin plan zehatza burutuko du langileak eta Azokaren V. mendeurrena eta bestelako planetan lagundu.

Komunikazioa. Teknikari batek lan egingo du web orriak eta tresna informatikoak egokitzeko, eta bigarrenak Udalaren komunikazio hobetzeko plana prestatuko du.

Udalaren enplegu plana

Aurreko kontratazioez gain, Udalak udaltzain berria kontratatatu du urte beterako. Era berean, San Juango lanen esleipenean bete araziko du ordiziarrek kontratatze baldintza eta Udal lan poltsa berria irekiko du. ■

“ Plan de empleo municipal

El Ayuntamiento ha contratado a 16 trabajadores a través del Plan 4000, que ofrece el servicio Lanbide del Gobierno Vasco. Además de peones, se han contratado a trabajadores que participarán en proyectos sobre igualdad, prioridades de las personas mayores, euskera, comunicación, la Feria, bienestar social, cultura, medio ambiente y juventud. Así mismo, ha contratado por un año un agente municipal. Además, exigirá en las adjudicaciones de las obras de San Juan contratación de vecinos del municipio y abrirá la bolsa de trabajo municipal.



Euskadi 4000 programako langile berriak, sailtako arduradunekin.

Udalaren auditoria kontuak argi izateko

Bilduko Gobernu taldeak Donostiako Betean enpresari agindu dio Udaleko diru kontuen auditoria egiteko. Gonbitea hiru enpresari egin die Udalak, eta baldintza guztiak bete dituen bakarra Betean izan da. Lanaren kostua 9.300 eurokoa (+ BEZ) izango da.

Finantza ikuskaritzaren helburua da Udalaren 2011 urteko aurrekontuaren likidazioa araudiak eskatzen duen kontabilitate printzipioekin bat datorrela ikuskatzea, sarrera irteerak aztertzea eta 2011ko abenduaren 31ko balantzea aztertzea. Era berean, ikuskaritzak erakuts ditzakeen balizko akatsak zuzentzeko eta administrazio eta kontabilitate prozedurak hobetzeko iradokizunekin txostena aurkeztuko dute.

Udalarena den Herri Antzokia erakunde autonomoaren egoera ezagutzeko ere balioko du azterketa honek. San Jose egoitzaren ikuskaritza ere Beteanek egin du azken bi urteetan eta Gobernu taldearen asmoa da Ordizia Lantzen sozietate publikoaren ikuskaritza ere hari eskatzea. ■

“ Auditoria de las cuentas del consistorio

El equipo de Gobierno de Bildu ha encargado a la empresa donostiarra Betean la auditoría de las cuentas del Ayuntamiento. El trabajo costará 9.300 € (+IVA). El objetivo de esta auditoría es comprobar que la liquidación de 2011 es acorde a los principios de contabilidad que requiere la normativa. El trabajo analizará el balance correspondiente al cierre de 31 de diciembre de 2011, para identificar errores si los hubiere y poder rectificarlos. El equipo de Gobierno pondrá también que se realice la auditoría de la empresa pública Ordizia Lantzen.





Migrazio teknikaria azalpenak ematen etorkinei otsailaren 18an egindako bileran.

Udal Harrera Sarea

Aurreko aldizkarian adierazi bezala, Ordizian jatorri ezberdinetako hainbat pertsona bizi gara, eta guztion erronka gizarte kohesioa edota **elkarbizitza sustatzea** da. Honekin batera, gogoratu behar dugu migrazioaren fenomenoak gizakia bera bezain zaharra dela eta gizakien izaerarekin lotuta dagoela.

Fenomeno honen aurrean ordiziarrok nola kokatzen garen, nola elkar aberasten gaituen eta zein ekarpen egin dezakegun hausnartu beharko genuke. Hau da, alde batetik, etorkizun laburrean, demagun hemendik 20 urte-tara, nolako Ordizia nahi dugun galdetu beharko genuke, eta bestetik, besteei zer eskaini diezaiekegun eta besteengandik zer jaso dezakegun galdetu beharko genioke geure buari.

Elkarbizitza indartzeko proiektu honekin proposatzen dena zera da: Ordiziak, edota Euskal Herriak, duen testuingurutik (euskal kultura: historia propioa, egoera ekonomiko eta soziala, mundua ulertzeko modua, erlijioa, ohiturak, hizkuntza, etab.), beste testuinguruak kontutan izatea eta denon artean Ordiziarako aproposa izango den eredu bat lantzea.

Horretarako, *Udal Harrera Sarearen* lehen eginkizuna udalerrri mailan eragile ezberdinen artean **Sare integral** bat sortzea izango da (jatorri ezberdineko herritarrek, elkarrekin, gizarte-guneek, Udala zein beste erakundeek...).■



Ainara Ormaetxea Harto
Ordiziako Udaleko Migrazio eta Aniztasun Teknikaria

“ Red de Acogida Municipal

Tal y como se comentó en la anterior edición, Ordizia esta compuesta por personas de diferentes procedencias, y el reto que tenemos entre manos es fomentar una sociedad cohesionada, o dicho de otra manera, impulsar y reforzar la **convivencia** entre todos y todas. Por eso, nuestra aportación debe de ser, entre otras, la de reflexionar sobre qué tipo o qué **modelo** de convivencia queremos para nuestro pueblo en un futuro no tan lejano. Para ayudar y acompañar en este camino se está poniendo en marcha la *Red de Acogida Municipal – Udal Harrera Sarea*.

Este proyecto consta de tres partes:

- **Ongi etorri Ordiziarra!** Una vez al mes (los últimos miércoles), habrá **Sesiones Informativas** dirigida a las personas recién llegadas al municipio o para aquellas que tengan necesidad o interés. Junto a esto, habrá **Temas Monográficos**, donde se podrá profundizar sobre diferentes temas.
- **Elkar ezagutuz.** En estos espacios, por un lado, a través de charlas y mesas redondas, podremos conocer y entender mejor las diferentes culturas de las personas que viven en Ordizia y conocer la realidad social, política y económica de los países de procedencia de estas personas. Por otro lado; se crearán espacios de encuentro y conocimiento.
- **Komunikazio kontseilua.** Servirá como espacio de coordinación y para hacer un seguimiento de los programas que se están desarrollando entre los agentes que formen la Red.

Contenido de las Sesiones Informativas:

- Historia de Ordizia, cultura, euskara y su contexto, personajes más importantes, ubicación,...
- Vive y Convive: Cultura, costumbres, fiestas, agentes sociales y asociaciones, infraestructuras,...
- Recursos y servicios: empleo, servicios sociales, juventud, deportes, igualdad, atención ciudadana,...
- Al finalizar, se hará una pequeña visita guiada para conocer diferentes recursos y lugares emblemáticos de Ordizia.

Más información:

943 88 98 07 // aniztasunaoh@gmail.com



Martxoak 18, Ordiziako azokak 500 urte

Martxoaren 18an beteko dira 500 urte Ordizia sute handi batek zigortu zuela. Hori gogoan, eta jakinda herria altxatzeko maiatzean peria egiten hasi zirela garai haietan (*“urtean zehar, asteazkenero, merkatu librea, zergarik gabea, egiteko errege baimena”* jaso zuen), ospakizun berezia egingo da aipatu egunean. “Ordiziako periak 500 urte” batzordea urte osorako egitaraua lantzen ari bada ere, martxoaren 18rako egitarau berezia prestatu da herriar eta herriko talde eta eragileekin elkarlanean.

- 10:30 Goizeresia Ordiziako txistulariekin
- 11:00-12:00 D´Elikatuzen hasita Tekno altxor bila “Ordizia eta azokaren historia ezagutuz”
- 11:30 D´Elikatuzen harrera azokako baseritarrei, azokaren ikus-entzunezkoa eta Kimetzek egingadako dokumentalaren aurkezpena
- 12:15 Plaza Nagusian azokako ekoizleei omenaldia, eta bereziki emakume baserritarrari: omenaldi ekitaldia, bertsolariak, aurrekua...
- 13:00 Beti Argi Bandaren kontzertua.
- 13:45 Azoka 500eko ipuin kalejira.
- Kaleetan festa giroa: txaranga, txistulariak, dultzaineroak...
- 14:30 Herri bazkaria frontoian azokako ekoizleeekin. Bertan Santa Ana Abesbatza, Rondalla eta bertsolarien emanaldia
- 17:00-20:00 Plaza Nagusian jolas bitxiak (4-9 urte)
- 16:00-18:00 kirol kooperatiboak (9-14 urte) J.M.Barandiaran Plazan
- 18:00 Herri kirol ikuskizuna J.M.Barandiaran Plazan. 500 aldiz harria jaso baietz! Emanurre taldekoen eskutik
- Herrian zehar txaranga, festa giroa
- 20:00 Plaza Nagusian argiak itzali, antortxak piztu eta “Ordiziarrak Gera” Beti Argi Bandarekin.■



Plaza Nagusiaren irudi zaharra, egungo estalkia egin aurretik.



Euskal Jaietako Ganadu Lehiaketa Garagartza Plazan (1932)

18 de marzo: 500 años de Feria

El próximo 18 de marzo se cumplen 500 años desde que se produjo un grave incendio en Ordizia. Con el fin de poder reconstruir el pueblo se comenzó a celebrar la feria de los miércoles. Para celebrar dicho aniversario, la comisión “Ordiziako periak 500 urte” está elaborando una programación festiva que se desarrollará durante todo el presente año, y especialmente durante el próximo día 18 de marzo. Si bien mediante estas celebraciones se pretende homenajear a los y las baserritarras que han mantenido viva nuestra feria, todos y todas las ordiziarras, de todas las edades, tendremos oportunidad de disfrutar del extenso y variado programa que se está elaborando.

Jai Batzordea martxan

Ordizian jaiak garrantzia handia izanik, Udaleko Partaidetza arloak berriro martxan jarri nahi du Jai Batzordea, helburu nagusi honekin da urtean zehar ditugun jaiak parte hartzaile eta herrikoak izan daitezen lan egitea. Batzordea herriko koardila, elkarte eta herritar guztiei irekia egongo da, eta garrantzitsua izango da ahalik eta partaidetza zabalena izatea.

Konturatzerako, Santa Anak gainean ditugu, eta honenbestez, lehen bilera martxoaren 6an, arratsaldeko 19:00etan Barrena Kultur Etxean egingo dugu.■



Comisión de Fiestas

La Comisión de Fiestas celebrará su primera reunión el próximo 6 de marzo a las 19:00h. en Barrena. Al recuperar esta comisión, se pretende promover la participación de las cuadrillas, asociaciones y ciudadanía en general en el diseño y organización de nuestras fiestas para incidir en su carácter popular y participativo.